

UDALBILTZA[®]

ADIERAZPEN INSTITUZIONALAK 1999



EUSKAL HERRIKO UDAL ETA UDAL HAUTETSIEIEN BILTZARRA

ALKATEEN DEIALDIA

Urtarrilaren 25ean

Euskal Herri osoko hogeita bat alkatek udal ordezkari guztiei gonbitea luzatu zieten urte bereko otsailaren 6an Iruñeko Carlos III zinematokietan egingo zen batzarrean parte har zezaten.

Alkate Jn./Anr:

Gure herri eta hiriei horrenbesteraingoko itzaropena ekarri dien berri honetan, behean sinatzen dugunok, hau da, Euskal Herriko 21 udalerritako alkateok uste dugu udalek etapa horren alde aktibo izan behar dugula etorkizunean bakean, demokrazian eta askatasunean oinarritutako Euskal Herria izan dezagun.

XXI. mendearen atarian gauden honetan; globalizazio ekonomikoa bezalako faktoreen menpe dagoen eta bizi garen mundu honetan; eremu guztietan aldaketa handiak gertatzen ari diren honetan; eta Europa sortze bidean dagoen honetan, bertan estatu gehiago sartu baitira..., Lapurdi, Zuberoa, Nafarroa, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko hiritarrok ez dugu Euskal Herriko hiritar gisa ordezkatzeko gaituen erakunde orokor eta amankomunik.

Euskal politikagintzan udal izaeraren garrantzia begibistakoa da, izaera hori gure herriko historian oso sustraituta baitago eta inportantzi izugarria izan baitu Euskal Herriko eskubideen aldeko defentsan. Lehen orain bezala, udalerrria derrigorrezko erreferentzia da gure herriko erakundeak artikulatzeko garaian; izan ere, horixe bera baita sei euskal lurraldeetako ordezkari itza duen erakunde bakarra.

Udal hautetsi batzuek Euskal Herriko lurraldetasunaren aintzetespena bultzatzen dugu eta hautetsi guztion ekintza bateratua euskal komunitate politikoaren kohesioaren eta nazioarteko proiektzioaren aldeko ekimen garrantzitsua izan daiteke. Era bertsuan, diagnostiko amankomun, bateratu eta homogenea egin ostean, gure udalerrietan egunero egiten dugun kudeaketak balio dezake guztion kultur, ekonomi, hizkuntza eta gizarte arazo eta erronkei aurre egiteko.

Hori dela eta, euskal gizartearen aniztasuna aintzakotzat izanik, lurralde historiko guztien nortasuna kontuan harturik eta Euskal Herriko biztanleen borondatearen adierazpen askea errespetatzen dugun heinean, eta demokrazian sakontzeko prozesua bultzatu eta aldezteko asmoz, gonbita luzatzen dizugu, baita zure Udaleko talde politikoen bozeramaileei ere, 1999ko otsailaren 6an goizeko 11etan egingo den bileran parte hartzeko. Bilkura horren helburua udal izaera duen Euskal Erakunde Nazionala martxan jartzeko komenientzia edota beharra aztertzea izango da. Etorriko zaretelakoan/zarelakoan, jaso ezazue/ezazu gure agurrik beroena.

- J.A. CUERDA MONTOYA	Gasteiz
- M ^a DEL YERMO URKIJO ELORZA	Laudio
- (P.O.) I. ARESO MENDIGUREN	Bilbo
- H. CIRARDA ORTÍZ DE ARTIÑANO	Getxo
- R. OTXANDIO IZAGIRRE	Basauri
- J.M. BASTIDA ARRIETA	Azpeitia
- J. JAUREGI BEREZIARTUA	Beasain
- J.A. AGIRREBENGOA IMAZ	Altsasu
- J.L. ETXEGARAI ANDUEZA	Lesaka
- J. ANIOTZBEHERE	Sara
- J.A. ALTUNA AIZPURUA	Usurbil
- J. IÑARRA AGIRREZABALA	Oiartzun
- F. FLORES LAZKOZ	Etxarri-Aranatz
- M.G. MENDIETA ZELAIA	Aulesti
- P. GONZÁLEZ ARGOMÁNIZ	Urretxu
- I. BERAZA ZUFIAUR	Agurain
- J. HERNANDORENA CALANTE	Truzios
- F.J. OIARTZABAL IRIGOIEN	Baztan
- JOANES GOIENETXE	Ostankoa
- JEAN MICHEL GALANT	Azkarate
- J.L. CAMPO VALLE	Berriozar

IRUÑAKO ADIERAZPENA- Carlos III

Otsailaren 6an

Hainbat gai eztabaidatu ostean, biltzarra deitu zuten alkateek prestatutako proposamena irakurri eta aho batez izan zen onartua, bertan bildutakoen txalo zaparradaren artean. Agiriak udal izaeran oinarritutako euskal instituzio nazionala abian jartzeko nahia adierazten zuen eta horrek izango lituzkeen helburuak bost puntutan laburbiltzen zituen.

Udal izaera duen Euskal Instituzio Nazionala martxan jartzeko komenientzia edota beharra aztertu asmoz, Euskal Herriko alkate eta udal taldeetako bozeramaleei 1999ko Urtarrilaren 25ean Gasteiz (Jose Angel Cuerda Montoya), Laudio (Maria del Yermo Urkijo Antiñano), Basauri (Roberto Otxandio Izagirre), Azpeitia (Jose Maria Bastida Arrieta), Beasain (Jon Jauregi Bereziartua), Altsasu (Jose Antonio Agirrebengoa Imaz), Lesaka (Jose Luis Etxegarai Andueza), Sara (J. Aniotzbehere), Usurbil (Jose Antonio Altuna Aizpurua), Oiartzun (Jon Iñarra Agirrezabala), Etxarri Aranaz (Juan Fernando Flores Lazkoz), Aulesti (Gema Mendieta Zelaia), Urretxu (Peio Gonzalez Argomaniz), Agurain (Iñaki Beraza Zufiaur), Truzios (Juan Hernandorena Calante), Baztan (Francisco Jose Oiartzabal Irigoien), Ostankoa (Joanes Goyhenetche), Azkarate (Jean Michel Galant) eta Berriozarreko (Jose Luis Campo Valle) alkateek, 1999ko Otsailaren 6an goizeko 11etan Iruñako Nafarroako Gorteen kalean 7.zenbakian dagoen Carlos III zineman burutu zen bilkurarako egin zieten deialdiari erantzunez, Euskal Herriko 317 udalerrietako 666 alkate eta udal taldeetako bozeramaile azaldu ziren.

21 alkateen gidaritzapean eta "Alkate Soinua"ren musikaz, ekitaldiaren hasierari ekin zitzaion. Ondoren, Iruñeako zinegotzia zen Jose Martin Abaurreak ongi etorria egin zien Iruñean azaldutako udal hautetsiei, euskaraz, gazteleraz eta frantzesez.

Bilkurara deitu zuten alkateen izenean, Basauriko alkatez zen Roberto Otxandiok, deialdiaren zergatiak azaldu zituen euskaraz eta gazteleraz. Deialdiaren erabateko zilegitasuna azpimarratu zuen, edozein pertsonak biltzeko eta askatasunez iritzia emateko eskubidea baitu. Era berean, Euskal Herriko herrietan horrenbestearainoko itxaropena ekarri dien etapa berri honetan, 21 alkateek udalek etapa horren alde aktibo izan behar dutelakoan zeudela adierazi zuen, beraien eguneroko zeregin politikoa etorkizunean demokrazian,

askatasunean eta bakean oinarritutako Euskal Herria izan dezagun bideratuz.

Zentzu berean, Euskal Herriko eskubideen defentsan udal hautetsiek izandako garrantzia gogoratu zuen.

Eta bukatzeko, euskal gizartean aniztasuna aintzakotzat izanik, lurralde historiko guztien nortasuna kontuan harturik, Euskal Herriko biztanleen borondatearen adierazpen askea errespetatuz eta demokrazian sakontzeko prozesua bultzatu eta aldezteko asmoz, kokatu zuen deialdia.

Ondoren Gema Mendieta (Aulestiko Alkatea) euskaraz, Jean Michel Galant (Azkarateko Alkatea) frantzesez eta Iñaki Berazak (Aguraingo Alkatea) gazteleraz, 21 alkateek landutako Euskal Herriko Udal Hautetsien Aldarrikapenaren Proposamena irakurri zuten, honako hau zioelarik:

"Lapurdi, Zuberoa, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako alkate eta zinegotziok Iruñean elkartu gara gaur, erabat demokratikoa den ekitaldi bat gauzatzeko. Bakoitzak ordezkatzeko duen herri ordezkartzan, batzartzeko eskubidean eta adierazpen askatasunean oinarritzen da ekitaldi hori. Gainera, ekitaldi horren izaera demokratikoa ezin daiteke manipulazio kanpaina baten bidez hutsaldu. Izan ere, ekitaldi manipulatzeko ahaleginak egin dira deialdia burutu aurretik, Euskal Herriko biztanleen arteko liskarra bilatuz.

Gure ordezkartza eta lan-esparruetatik, hau da, marko juridiko-politiko ezberdinetatik abiatuta, sei herrialdeetako euskaldunen harremanak legitimoki bultzatu nahi ditugu. Egungo, hiru administrazio egitura hau gainditzea beharrezkotzat jotzen dugu, Euskal Herriaren garapen osoa eragotzi dutelako eta XXI. mendeko erronkei aurre egiteko berma gisa.

Globalizazio ekonomiko, kultural, sozial... bezalako faktoreen menpe dagoen mundu konplexuan bizi gara. Gizarteko alor guztiak aldatzen eta eraldatzen ari dira eta Europa sortze bidean dago, estatu berriak sortzen ari baitira. Hortaz, ezinbestekoa dela uste dugu euskal udalen esperientzia Euskal Herriko etorkizun berriaren sortze lanean erabiltzea, betidanik izan dutelako garrantzi handia bertako bizimodu politikoan.

Horrez gain, gure hiri eta herrietan horrenbestera inoko ilusioa sortarazi duen etapa politiko berriak hauxe eskatzen du: Euskal Herriko udal hautetsiok aurrez aurre ditugun aukerak jorratzea eta eguneroko zeregin politikoak bakerantz eta Euskal Herriko demokrazia eta askatasunean oinarrituriko etorkizunerantz bideratzea.

Hori dela eta, Euskal Herriko udal hautetsiok udal izaeran oinarritutako euskal instituzio nazionala ertzeko nahia adierazten dugu, ondoko helburuak ditugularik:

1. Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzea.

2. Euskal Herriaren egituraketa politikoak eraikitzeari laguntza ematea, lurraldetasunaren lekuko izanik eta sei euskal herrialdeetako udal ordezkariak esparru erkidean batzeko asmoz. Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartzea askean oinarriturik.

3. Erakunde iraunkorra izateko asmoarekin jaio da; borondatea pilatu eta batzeko sortua da eta ez du, ordea, beste erakunde baten bihurtzeko asmorik. Izan ere, erakundea nazio esparrukoa denez, Euskal Herriko antolakuntza instituzional zein politikoak egituratzen sortu beharreko azterketa eta eztabaidak bultzatuko ditu, dinamika politikoarekin bat eginez. Egituratze honen zehaztasunak prozesu demokratiko baten menpean adostu beharko dira, non euskaldunen partehartzea funtsezkoa litzateke eta herrialde historiko guztien nortasuna eta izana errespetatuko lirateke.

4. Herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzea. Erakundea zabalik dago Euskal Herriko erkidego naturalean bere jardura garatzen duen hautetsi guztientzat, politika, kultur, soziologi eta ekonomi erkidego gisa definitzen gaituzten lan eta lankidetzak esparru guztien inguruko ekintza bateratua ahalbideratuz. Esparruok ondokoak dira, besteak beste: hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiroa, lurraldearen antolaketa, ekonomi garapena, ongizatea...

Lehendabizi, Euskal Herriari buruzko diagnostiko oinarrizkoa egingo litzateke: geroago, nazio eraikuntzaren arazo eta erronka erkideei modu bateratu eta homogeenan egingo litzaieke aurre, eta proposamen zehatzak beste esparru instituzional batzuei, gizarte mugimenduei, erakundeei,... bideratuko litzaieke.

5. Nazioartean, Euskal Herria nazio berezkoa eta desberdindua dela adieraztea, baita Euskal Herriak nazio gisa jardun nahi duela Europako geroko egituraketan eta instituzioetan ere.

Ondoren, hitza hartzeko txanda ireki zen eta honako hauek hartu zuten parte: Jose Luis Campo (Berriozarko Alkatea), Joanes Goyhenetche (Ostankoako Alkatea), Peio Gonzalez (Urretxuko Alkatea), Jon Iñarra (Oiartzungo Alkatea) eta Borja Jauregi (Hondarribiko Alkatea). Beraien arteko posizio politikoak ezberdinak ziren arren, guztiek bat egin zuten aurkeztutako dokumentuarekin.

Aldarrikapen politikoa bozkatu zen eta erabateko adostasuna jazo zuen. Aldarrikapena onartu ondoren, mahaitik udal izaera izango duen Institutio nazionala eratzeko eta aurretik egin beharreko lanak garatzeko Batzorde Iraunkorraren proposamena luzatu zitzaion asanbladari.

21 alkateek luzaturiko proposamena aho batez onartu zen. Honako hauek izan ziren aukeratuak Batzorde Iraunkorra osatzeko:

- Borja Jauregi Fuertes	Hondarribiko alkatea
- María del Yermo Urkijo Elorza	Laudioko alkatea
- José Luis Etxegarai Andueza	Lesakako alkatea
- Jon Jauregi Bereziartua	Beasaingo alkatea
- Gemma Mendieta Zelaia	Aulestiko alkatea
- Fernando Flores Lazkoz	Etxarri-Aranazko alkatea
- Peio Gonzalez Argomániz	Urretxuko alkatea
- Iñaki Beraza Zufiaur	Aguraingo alkatea
- Joanes Goyhenetche	Ostankoako alkatea
- Roberto Otxandio Izagirre	Basaurkiko alkatea

Gure herriaren etorkizunerako hain garrantzitsua izan den deialdi historikoa egin zuten alkateak agurtu ondoren eta han bildutakoen txaloen artean, 21 alkateek mahaia utzi duten, eta Batzorde Iraunkorrek bere tokia hartu zuen.

Roberto Otxandiok Batzorde Iraunkorraren lehendakaritza berea eginez, bilkuran azalduz udal hautetsiek Euskal Herriaren defentsan agerrarazi zuten konpromiso historikoa azpimarratu zuen, erabaki honek urrats garrantzitsua suposatzen zuela euskal herrialdeen arteko harremanei dagokionez. Era berean, azaldu ez zirenak aipatu zituen, Instituzio honek atek zabalik zituela adieraziz.

Bere interbentzioa bukatzeko Euskal Herria zoriondu zuen, aurrerantzean jende guztia elkarrekin Euskal Herriaren askatasuna, demokrazia eta bakearen alde lan egitera animatuz. Batzorde Iraunkorrek berea egiten zuela onartutako aldarrikapena eta honek suposatzen zuen Instituzio Nazionala martxan jartzeko konpromisoa.

Iruñean, 1999ko otsailaren 6an

EUSKAL HERRIKO UDAL ORDEZKARIEN BATZARRA

Bilbon, 1999ko Irailaren 18a

Bilboko Euskalduna Jauregian egin batzarrean, UDALBILTZA sortzearekin bat, beronen lehenengo adierazpen politikoa ezagutarazi zuten hautetsiek.

Euskal Herriak milurteko aldi nahasietan barna osatu du bere historia, eta Aturritik Ebroraino lurralde ezaugarri berdinak eta anitzak dituen Herria hezur-mamitu du. Ia hiru milioi euskaldun gara, sei lurraldetan zabalduriko 20.800 km. Karratuetan.

Gure Herriak iragan hurbilean bizi izan ditu guda garaiak, inposaketak, oraindik berreskuratu gabe ditugun eskubideak indarrez kentzeak, horren ondorioz, XXI. Mendearen atarian, Euskal Herria, nazio izaera ukatzen dieten bi Estatuetan zatiturik aurkitzen da, oso errealitate politiko, kultural eta garapen ekonomiko eta geografiko ezberdinekin.

Baina Euskal Herriak historian zehar bere bidea egiten jarraitzeko borondateari eutsi egiten dio, egoera berri baten aurrean gaude Euskal Herriaren eraikuntza nazional eta demokratikoari ekiteko garai itxaropentsuan. Eta lehenagoko aldietan bezalatsu, zeregin eta lan horrek udal eta udal hautetsien ekarpena eskatzen du.

Otsailaren 6an, Lapurdi, Zuberoa, Nafarroa, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako alkate eta zinegotziok Iruñean bildu ondoren, bertan onartutako adierazpenean jasotzen ziren helburuak zituen udal oinarria duen euskal erakunde nazionala sortzea erabaki genuen. Erabakitakoak oinarri sendoak eta ulerterrazak zituen. Alde batetik, gu euskaldunak gara, beraz, nahiz eta gure izaera nazionala ezkutatzen duten zatiketak dirauten, beharrezkoa dugu gure Herriaren izatea ez ezik, beraren eraikuntzan aurrerapausoak emateko balioko duen tresna ere gure eskuetan izatea. Bestetik, euskaldunek udal ordezkariengan utzi zuten ardurari erantzun egokia eman nahi zitzaion, sei lurraldetako biztanleon arteko loturak bultzatuz.

Aurten, ekainean, lau lurraldetan hauteskundeak izan ondoren, Iruñean hautaturiko Batzorde Iraunkorraren prestaketa lanak burutu ondoren eta honek luzatutako proposamenari erantzunez, ekitaldi honetan aurkitzen garen Euskal Herriko alkate eta zinegotziok, Euskal

Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra, Udalbiltza deituriko lehen euskal nazio erakundea sortzea erabaki dugu, otsailean iragarri zen borondate politikoari jarraiki. Helburuak 99ko otsailaren 6an finkatutakoak dira, guk, beraien alde eta praktikara eramatearen alde egingo dugu lan.

Beraz, Udalbiltzaren jarduera, honako honetara bideratuko da:

- 1.- Euskal Herria nazio bat dela aldarrikatzea.
- 2.- Euskal Herriaren egitura politikoa erabiltzeari laguntza ematea, lurraldetasunaren lekuko izanik eta sei lurraldeetako udal ordezkariak esparru erkidean batzeko asmoz.
- 3.- Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratiko gisa ulerturik eta euskal herritar guztien erabakimen eta partehartze askean oinarriturik.
- 4.- Herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzea, hizkuntza, kultura, kirola, ingurugiroa, lurraldearen antolaketa, ekonomi garapena eta ongizatea bezalako esparruetan udal ordezkarien ekintza bateratuei aukera emanez.
- 5.- Nazioartean, Euskal Herria nazio berezkoa eta desberdindua dela adieraztea, baita Euskal Herriak nazio gisa jardun nahi duela Europako geroko egituraketan eta instituzioetan ere.

Honela, euskaldunontzat, Udalbiltza udal hautetsien agintaldiaren iraupenera lotua dagoen erreferentzi instituzionalean bihurtzen da, bateratua, ordezkaritza daramana, demokratikoa eta lurraldetarra. Beronek nazio eraikuntza osatzen duten eta ezberdinen azterketa eta bultzadarako gogoeta leku izan behar duelarik.

- ✓ Udalbiltzak, sinbolikoki eta praktikoki Euskal Herriaren lurraldetasuna adierazten du.
- ✓ Udalbiltzak Nazio bezala aritzea ahalbideratzen digu.
- ✓ Udalbiltzak, munduaren aurrean euskal Nazioaren izatea ikustaraztea gauzatzen digu.

Guretzat, Euskal Herriko udal hautetsiontzat, Udalbiltza erreferentzi politiko eta instituzionala bihurtu da, horregatik, Udaletxeko gure eguneroko lanean, Udalbiltzak hartutako erabakiak ardatz orientatzaileak izango dira, bertatik sortutako jarduera, gomendio eta iritzi errealitatera eramaten saiatuko garelarik.

Udalbiltzak udal kudeaketa eta aktiboan eta ekintza zehatzen bidez erakunde nazionalak dituen lortzera bideratu behar du bere zeregina.

Udalbiltzak, eta gaur hautatua izan den Batzorde Eragileak, helburu horiei begira hasten dute lana, eta gaur hautatua izan den Batzorde Eragileak, helburu horiei begira hasten dute lana, horretarako, ezer baino lehen, abiapuntua zein den jakin behar da, Euskal Herria osoaren errealitate sozial, ekonomiko eta kulturala ezagutu behar dugu. Datuak, estatistikak, aldagai ekonomikoak, biztanleriaren piramideak eta abar luzea behar dugu, sei lurraldeen ikuspegia hartuz; gaur ez daukagu diagnostiko globala, Euskal Herriari ez zaiolako inoiz utzi bere ispiluan begiratzen.

Gainera, ezarritako helburu bakoitzak banakako eta aparteko tratamendua behar du, beraz, Udalbiltzak, gaur intentzio adierazpena izan denak, ahalik eta epe laburrenean zehaztasun praktikoa izan dezan, bere baitan, xede horri begira egokien diren neurriak hartu eta garatuko dituzten lan taldeak osatuko ditu.

Konpromiso honetan beste erakunde eta eragile ekonomiko, sozial eta sindikalekiko elkarlana bultzatuko dugu, baita gure Herriaren osotasunezko garapenak gidaturiko ekimenak ere. Nazio eraikuntzak herritar guztien partehartzeari irekia behar du izan. Etengabeko komunikazio eta elkarrizketa hori izango da, hain zuzen, Udalbiltza jardueraren ezaugarri nagusia.

Euskal Herriak, egitasmoa demokratikoa izaki, Udalbiltza bezalako erakunde baten premia du, herri gisa bere biziraupenaren iturririk oparoena den subjektu politikoa eta beronen lurraldetasuna zehazten baitu. Baina egitasmo horrek lurraldeen arteko barne egituratzea eta beronek hartuko duen eredu instituzionala zehaztea ere eskatzen du. Honi begira Udalbiltza, udalerriek dituzten aukera apartaz baliatuz, azterketa zein eztabaida zereginetan arituko da, lurralde historikoen nortasun eta erregimenekiko begirunearen printzipioari atxikiz.

Zeregin hauen gauzatze bidean Udalbiltzaren osatze ekitaldi hau urrats bat da. Gogotik saiatuko gara bultzatzen dugun Euskal Herriaren nazio eraikuntza euskal gizarteak gatazka, zatiketa edo ezarketa bezala ikusi ez dezan, herritar eta lurraldeen arteko ezagutza eta errespetuan zein euskal herritargoaren bategite askean oinarritutako elkarren arteko bateratze gisa baizik. Beti kultur, hizkuntza eta politika elkargo bereko partaide izateak batu egiten gaituela abiapuntutzat hartuta.

Euskal udal hautetsiak gara, eta euskal Nazioan sinesten dugu. Euskal herritar orori ez ezik, beste udal ordezkarietara ere une historiko honetako protagonista izateko deia luzatzen diegu, era horretan, etorkizun hurbilean, Euskal Herria bere orainaren jabe izanik, nazioarteko komunitatean bere nortasunaz jantzitako eragile politiko ezagutua izan dadin.

Ilusioa eta lanerako gaitasuna badugu, gure Herriaren historian zehar ezagutu gabeko jarduera politiko bateratuan oinarrituta, berea ez den beste errealitate politiko eraginkorrik onartzeari uko egiten dioten Estatu egituren inobilismoa gainditzeko.

Euskal Herriaren etorkizuna euskaldunoi dagokigu. Gure herriaren garaia da.

Zorionak Euskal Herria!

Udalbiltza

Euskal Herriko Udal eta Udal Hautetsien Biltzarra

Euskalduna Jauregia, Bilbo, 1999ko irailaren 18an

ETAren SU-ETENAREN HAUSTURA

1999ko Abenduaren 25a

1999ko abenduaren 25ean, ETAren su-etenaren ondorioz, UDALBILTZAK adierazpen hau egiten du.

1.- Gaur egun Euskal Herriak bizi duen gatazkaren gainditze eta konponketa, euskal gizarteak libre eta demokratikoki har ditzakeen erabakiak errespetatzean datza. Hori da gatazkaren benetako muin politikoa.

2.- Legediaz gain, Euskal Herriari, nazio eta herri gisa, bere subiranotasun eta erabaki gaitasunaren jabe dela aitortzeko, ausardi eta borondate politiko demokratikoaren gabezia nabarmena da Espainia eta Frantziako erakunde eta alderdi politikoetan.

3.- Egunotan adierazpen esanguratsuak agertu dira euskaldun guztiok batuko gaituen marko politiko berriaren premia eta beronen osatze eta egituratzeari begira egin beharreko proposamenak mahai gaineratzeko konpromisoak ere adierazi dituzte publikoki zenbait alderdi politikok eta Herri honen gehiengo sindikala osatzen duten sindikatuek.

4.- Irailaren 18an buruturiko Batzar Orokorrean onarturiko zereginetan biltzen den bezalaxe, UDALBILTZAK bere egina du egungo errealitate juridiko politikoa aztertu eta Euskal Herriaren egituratze politiko instituzionala definitzen eta bideratzen laguntzeko zeregina. Funtzio garrantzitsu horri ekiteko borondate osoa adierazten dugu, euskaldun guztiok bere baitan kontutan hartuko dituen proposamenik osatuko duen eragile sozial ororekin elkarlanean.

5.- UDALBILTZAK, beraz, Euskal Herriaren egituratze politiko instituzionalari buruzko lantaldea eskaintzen die alderdi eta sindikatu horiei, aurkezturiko edo aurkeztuko diren proposamenak bertan eztabaidatu eta Euskal Herria osatu eta egituratuko duen marko politiko berri horren eraikitze bidea adosteko.

6.- Norabide honetan, Euskal Herria subjektu politiko gisa gorpuzteari begira, UDALBILTZAK arreta berezia eskaini nahi die Herrialdeen arteko harremanei eta berauen arteko egituraketa politiko instituzionalari. Dagoeneko eztabaida prozesua bideratzeko metodologia finkatua du lantaldeak.

Euskal Herrian, 1999.ko abenduaren 25ean.